

Liburuak

KRITIKA

Ni naizen guztia. Arrate Egaña.
Irudiak: Mari Mar Agirre.
Erein. 28 orrialde. 6,50 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Zer gera gu?

“ZER GERA GU?” galdetzen zuen duela hamarkada batzuetako kantak. Orain, postmodernitatearen ondoren, “zer gara gu” hori “zer naiz ni” bilakatu da gure gizartean. Arrate Egañaren liburu honek, baina, ez du bakardadea, ez du lehiakortasuna islatzen, gutako bakoitzaren benetako izaera zer den baizik.

Jakina, antzinatek filosofoek beren buruari egiten dioten galdera hori oraingoan haurrentzako liburu batean ageri zaigu; hots, haur txikiak kontatzeko moduan, planteatzeko moduan dago egunik. Eta erantzuna, egokia izatekotan, hartzailearekin komunikazioa izatekotan, egokia izan behar.

Ni naizen guztia, bestalde, jolas bat da. Narratzailea neskatala bat dugu, bere bizitzako egun batean, esnatzen denetik gauetan lokartu bitartean, zer egiten duen eta zer sentitzen duen kontatzen digun neskatala da liburu honetako narratzailea. Horrela, goizean enbor bat da –“ez naiz oso umore onez ibiltzen, egurrezkoak ditut gorputza eta aurpegia”–, ondoren txori bilakatu da eskolarako bidean “saltoka eta korrika”, lastargi eskolan, munstroa jolastokian... eta egunak aurrera egin ahala izaera eta sentimendu ezberdinetako gauza eta izaki izango da narratzailea. Konparaketa horietan oinarritu da Egaña liburua: nondik norakoa egiteko; eguneroko une ezberdinetan egonek sorrarazten dizkiguten sentimenduen inguruko konparaketetan. Ideia labur, sinple, argi horiek Mari Mar Agirreraren irudietan argi eta garbi islatzen dira, gainera, ulermena laguntzeko, testua osatzeko.

Liburuak gauzen sinpletasuna eta izaera bakarra errebindikatu edo islatu beharrean, konplexutasunaren aldeko aldarria dugu. Zer gera gu? galdera hari –edo zer naiz ni oraingoari– erantzun bakarra eman beharrean Egañak erantzun multzo bat proposatzen digu. Liburuko narratzailea enborra dela esan dugu, baina baita txoria, lastargia, munstroa, puxika, sagutxoa, pailazoa, bikingoa, kapitaina... horiek guztiak direla esaten digu neska gazte narratzaileak, baina benetan zer den galderak azken orrian izango du erantzuna, aurreko guztien gainetik dagoena eta aurreko guztiak hartzen dituen erantzuna. Eta hain zuzen erantzun horrek ematen dio zentzua, osotasuna, liburuari eta liburuak planteatzen digun galderari.

Arrate Egaña eta Mari Mar Agirreraren artean eskaintzen diguten liburu hau, ikusi den bezala, jolas bat da, nahiko kontu serioa ukitzen duela eman arren; entretenimendu alaia, dibertitzeko eta ondo pasatzeko aukera bat... haur txikiarentzako literatura hain zuzen. ■

Zapiainen blogeko tiroak liburu batean bilduta

Filosofo blogaria da Markos Zapiain. <http://eibar.org/blogak/zapiain> helbidean irakur ditzakezue haren gogoetak, edo, ordenagailurik eskura ez baduzue, Elkarrek argitara eman berri duen *Talatik tiroka* izeneko liburuan. Gaiak, anitzak: politika, sexua, filosofia (noski), literatura, erlijioa, futbola... Azken zortzi urteetan idatzitako

testuak bildu ditu saiakera laburren bilduma honetan. Blogetan ibiltzeko astirik ez duenarentzat aukera ona, Zapiainen jardunera hurbiltzeko. Zerbait badute testuek; gainontzean, nekez esango zuen Joxe Azurmendik zera: ematen duela blogek literatura modu propioa sortu dutela. “Jainkoen festa bat” da liburua, Zegamako pentsalariaren esanetan. ■



Talatik tiroka.
Markos Zapiain.
Elkar.
217 orrialde.
19,50 euro.

Nazionalismoaz bestelako irtenbide bila

Galo Martínez de la Perak honako tesia defendatzen du Alberdaniak argitara eman dion *Musu truk* liburuan: Bankarien boterearen ondorioz estatu demokratikoak diktadura demokratiko bihurtu direla. Ideia horretatik abiatuta, gaur egungo Euskal Herriaren diagnostikoa egin du liburuan. Bere ustez, Euskal Herria hiltzear dago, ezkerreko eta eskuineko nazionalismoek sortutako defentsa estrategiak zaharkituta geratu dira, eta, ETArri armak kendu ezean, ez dugu irtenbiderik. Finean, Martínez de la Peraren aburuz, nazio-estatuak itsututa bizi gara euskaldunok. “Zulo” horretatik ateratzeko proposamena dakar berak. ■



Musu truk.
Galo Martínez de la Pera.
Alberdania.
187 orrialde. 17 euro.